FITO RODRIGUEZ

BIKTIMARI AGURKA

© Utriusque Vasconiae
Lehen argitaraldia: Donostia, 2012ko maiatza
ISBN: 978-84-938756-9-5
Lege-gordailua: SS-650-2012
Diseinua eta maketazioa: P.I.A.
Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu
Azaleko irudia: Raphaële de Gorostarzu

UTRIUSQUE VASCONIAE -
Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433
Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea:
BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239
JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)
Tel.: 05592232

https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

FITO RODRIGUEZ

BIKTIMARI AGURKA

Utriusque Vasconiae

Aurkibidea

Marmokaren txanela *7*
Eurialeren euri aleak *15*
Estenoren eztenak 23
Dinoren izuak *27*
Pefredoren jabegoa *35*
*Urd*en bazka *43*
Enioren adioa *49*
Zuzenbide debekatua *55*
*Verdandi*ren berdintasuna *61*
*Skuld*en sukaldea *67*
Justizia interdita *71*

MARMOKAREN TXANELA

Medusak ez ditu kalparrak buruan sugeak baizik. Hori da Medusaren zigorretako bat. Bortxatua izateagatik zigorradak jasotzeko behartua. Hiltzera kondenatua bere begien mezu mindua bezain mingarria ezin izan baitzuen inork jasan. Biktimaren begirada.

BIKTIMA
inork ez du izan nahi.

LE RADEAU DE LA MÉDUSE

A VICTIM is something nobody wants to be.

BIKTIMA inork izan nahi ez duena da.

A VICTIM is a being nobody wants.

THÉODORE GÉRICAULTEK irudikatu zuen honela.

OINAZEA, minik izan ez du inork nahi, alamena eta sufrimendua ez dira gauza bera, oinazea minaren bizipena baita haren herentzia da sufrikarioa, pairamena, eramankizuna…

OINAZEAZ jakin-mina minaren jakintza bilaka daiteke.

MINA interesgunea, oinazea jakingura,

BIZIGRINA,

BIZIGOGOA da.

OINAZEAK
Mututu egiten gaitu, itsu bihurtu eta entzumena kaltetu. Zorigaizpekoak arrangura galarazten dio bizitzaren bizierari.

Oinazearekin batera dena galtzen baita eta min duen landare bilakatzen gara.

OINAZEAK egin egiten gaitu baina zer egiten dugu oinazearekin? Ikaragarria dena bizitza da.

Eta bizia galtzea.Baina hau ez da baieztapena, galdera baizik: Zer egiten dugu oinazearekin?

ABIAPUNTUA kezka dugu. Kexa da abian.

Zer egiten dugu oinazearekin? Zer egin? Norberaren minaz. Bestearen sufrikarioaz. Bere hartan onartu besterik ez al dago? Gizakiok, berez, minaren minez bizi behar al dugu? Edota minaren aurka, oinazeari aurre egiten, alamenaren kontra, pairamenduarekin borrokan, etsi gabe, ez abere, gure bizitzaren jabe?

Gizajende dena gizagaixo? Gizagajo gizaginik besterik ez al gara besteekiko? Gizaki guztiok gizakoi? Gizartean dago mina gizarte-oinazea dagoenean.

Eta dagoeneko, gizamina gizarte-oinazea da.

Gezamina.

MINA politikoa da politika-minak jota dagoenarentzat soilik? Politika gizarte mina arintzeko behar al dugu bakarrik?
Politika zuzenak zuzenbidea behar al du?
Gizartean norberak oinazea saihesteko eskubidea al du? Harremanik ba al dago zuzenbidearen jardunaren eta pairamenduaren artean?
Tarte horri artez ala berez egokitu behar al zaio…?

Edozein politikak, lege multzo denek, oinazeari buruzko irizpideak, iritsibideak, eskaintzen, ezartzen, behartzen ditu.

Zuzenbidearen bihotzean, Politikaren mamia, Oinazea egoten da.

BAINA mina, nork bere buruari nahiz batak bestari eginiko galdera dugu.

Jendearengan eragina duen politikara eta zuzenbidera gerturatzeak, oinazera eramaten gaituen bidea ezagutzera garamatza eta xendra horretan baleko estratak bidatz zaharrak edota erreiak badira.

Aintzakotzat hartu ohi diren oinazeak eta batere balio ez dutenak.

Nagusien mina, haien beharrak, baititugu Politikaren bihotza menpekoen

oinazea bide galduetan desagertzen den bitartean.

Herriko plazan dugu jende printzipalaren oinazea ikusgarri, auzo ezezagun bezain ilunetan dago, lauso eta ikusezina, jende xeheena.

Oinazearen muntak edo motak ez du garrantzirik, nork pairatzen duen baizik.

Ezin da izan sinestun jendearen oinazean baino eta hura ahalbidetu duenaz…

OINAZEA izugarria izaten da baina itzurgarria ere bada.

OINAZEA baztergarria dugu.

OINAZEAK egiten dira.

OINAZEAK ostu egin ditzakegu.

OINAZEAK desagerraraztea da ene sinesmen bakarra.

OINAZEAK bazterrarazteko modua da nik bilatu nahi dudan bidea.

OINAZEAK ez baitira norbanakoarenak soilik erabat eragindunak baizik edo agindutakoak.

Eta aginpide haiek, ezkutuko eragin gaiztoak dira nire ahalegin aginduak zokoratu nahi dituztenak.

EURIALEREN EURI ALEAK

Medusa hil nahi izaten dute, bistatik ezabatu, hilkorra delako.

Euriale, aldiz, hilezkorra da, gogoan irauten du eta negar sendagarria dauka.

SAMINAK bat batean jotzen al du ala alez ale…?

SAMINA pairatzerakoan paliatu nahi dugu, baretu, arindu, saihestu… eta hori jakintza da, belaunaldiz belaunaldi bildutakoa.

ALEZ ale metatutako jakinduria, ez jabetza aleatorioa, ez eta janzkera

axolagabe, jakingosearen galbahe, zorigabearen jakitatea.

SAMINAK bere arauak baititu, jakin beharrekoak, haien aurka ibiltzekoak.

MEDUSAREN nahiz Eurialeren kontrakoak: Betiereko minari aurre egiteko betiko estrategiak.

MINAK berdindu egiten dituelako animaliak eta gizakiak.

OINAZEA, ordea, gizadiagoa da, bizipena baita, eta hortaz, mintzagai delako: gogoetabide eta galdera, adierazpide eta jabeldura.

JAKINMINA da galderaren abia, baita eskaeraren habia.

ERANTZUNA, berriz, ohikoa bada ere, edota ohikoa izan arren, ikasiak izaten dira, gizartean edo mintzo-

enean, gizakion oinazea ikasbide delako.

OINAZEAK, halere, ez du norbera jakintsu bihurtzen.

MINAZ gizakiak egiten duenak, gizaki bakoitzak nahiz gizarteak dioena, bihurtzen gaitu jakintsuagoez baikara munduko gauza bat soilik mundu horri adiera emateko gauza bagara.

MINA eta OINAZEA ez baitira sinonimoak hiztegiek horrela arautu arren, hizkuntza ezin baita hiztegien arabera ulertu, ez eta bizitza atsekaberik gabe bizitu.

BIHOZMINARENA ez da edozein min, dolua oinazez haratago doa soinaren mintasunaz areagoa delako.

OINAZEA delakoa bolumen goriko dolumena da.

MINA, gorputzaren erresumina besterik ez dena, oinaze bihurtzen ohi da aiurria minberatu errean, betiereko gorputz herren erratua, nabigatzaile nahigabetua…

OINAZEA eta MINA ez baitira gauza bera, bizitutakoari mintza emanez gero, mihiaren minaz haratago adierazteko gai baita.

PUPUA adiera ematetik aurrera, Mintzo-enean bizitzen hasi ondoren, gizakia gauza da, mina eta oinazea bereizten hasteko, hiztegiak horretarako gauza ez izan arren.

SAMINAK atzealdea, ibilbidea baitauzka.

ZAURKORRA baita gizakia.

BEHARRAK agintzen duelako bere bizitzan.

BAINA gizaki guztiek ez dute zaurgarritasuna berdin pairatzen.

SAMINA ez da inoiz demokratikoa izan eta biktimen begiek ezin dute denon begirada baldintzapetu.

ANIMALIENA da mina.

GIZAKIONA, samina.

GIZARTE osoarentzat balio behar du oinazeak eragindako jakinmina.

MINAK eta PLAZERAK baldintzatzen dute bizitza.
MINAK ETA PLAZERAK eutsi egiten diote biziari.

MINA ETA PLAZERA, gizartearen ziria, benetan edo penetan, bizi-zama eramateko gurdiaren gurpilak.

MINAK ETA PLAZERAK barnekoi bezain harremankoiak dira.

HARREMAN OHIAK eta bakardadeak, saminen sufrikarioak partekatu egiten dira, ez dira partekagarriak, ordea, gizarte ezberdintasunengatiko oinazeak.

Eta horretaz behar dugu mintzatu…

GARUNAK eta ADIMENAK markatu egiten dute oinazea.

MINA MIN, oinazearen esanahiak ikasi egiten dira.

GARUNAK ETA ADIMENAK mina nahiz oinazea ulertarazten dute, Garunak eta Adimenak ulertzeko ikasi ez arren.

GARUNAK ADIMENA sortzen duenetz jakin ez arren, horretaz hitz egiterik badago.

MINAZ mintzatzen den moduan.

MINAZ mintzatzen denaz ikastean datza mina ulertaraztea.

GORPUTZA, oinazearen oina.

BURMUINA, ikasitako mina.

GIZADIA sufrikarioaren aldia.

MINTZAMENA, ulertzeko ahalmena.

ESTENOREN EZTENAK

Esteno ere ez da inoiz hiltzen. Indarra du. Adimenaren ahalmena. Gogoeta biltzeko gaitasuna eta arretaz begiratzeko bizi edukiera.

MUNDUA da mintzatzen dena, gorputzen bidez, bizipenak direla bide, esaldiez nahiz berbaz haratago…

MINTZAMENAK eman egiten dio munduari muina erre aleak, errealak berbez jantziz, hitzez hitz…

MINAK eta hizkuntzen arteko harremanak mutua den munduaren

hizkuntza ulertarazteko bidea ematen dute.

MIN sakratua eta min patriotikoa, ez aberrimina, aberriak gurtuarazten duen herritarren (eta etsaien) oinazea bera da.

MARTIRIA da jainkoengatik (edo jainkorik gabeko estaturengatik) hiltzen dena.

SAKRIFIZIOA sarri fikzioa da.

MAISUAK eragindako mina Jainkoak edo Estatuak da emana.

MINAren hizkerak, era bertsuan, berdintzen eta ezberdintzen ditu gizakiak.

JAUNGOIKOaren mina (edo Estatuarena) bidezkoa, beharrezkoa eta onuragarria baita eta haren aldeko hizkuntza zilegigarria… hizkera ho-

ri argudioen, estiloaren eta erretorikaren jabe da.

HIZKERA horrek baimentzen du, ortodoxia sortzen du, boterea eta autoritatea ditu.

DINOREN IZUAK

Dino, zaharra bezain zuhurra da. Beldurrari aurre egiten badaki haren itzala aurreikusten duelako. Eskarmentuaren jakinduria dauka.

ISTRIPUA ez da istripu aldez aurretik ikus daitekeenean, edo bataz bestekoaren ondorio denean, somaezina bezain ohartezina behar du izan izuak.

ONARTEZINA da istripuari istripua esatea aurreikus daitekeenean hizkuntz ortodoxiak baimendu arren.

ISTRIPUAK ezkutatzen duen zuzentasun falta ez da hizkuntza egokitasunarena soilik ekitatearena baizik.

AUSAZ gertatutakoa ez baita aurreikusitakoa izaten…

ITSASOAN hil arren etorkinak itsas istripuz hiltzen ez baitira.

OINAZEAK ez dituelako galderak sortzen, bakarrik,

ERANTZUNAK ere ematera gaitu behartzen.

ZER EGIN? norbanakoari galdera bada ere denon hausnarra ere badu eskatzen…

BIZITZA bizi ahal izateko sentitu beharra dagoelako.

HAUSNARTZEAK giza gaitzez libratzeko balio behar duelako.

OINAZEAK irakasten al du? jakintza bide al da?

ERLIJIOAK edo FILOSOFIAK esan bezala…

OSPITALEAK al dira Fakultateak eta Elizak?

BIHOTZERREAK bazkari gozoak baino jakinduria gehiago eskuratzeko balio du?

EDOTA biak batera doaz ezinbestean?

EZ, EZ eta EZ!
minak ezin baitu baleko hausnarketa behartu…

MINAREN bidez ikasitakoa jakintza birringarria izan daitekeelako.

MINAK norbana orban bihurtzen duelako eta pertsona, gizakiago egin

ordez, abere besterik ez du egiten, astotu eta kirtendu, okertu…

OINAZEAK ez gaitu jakintsuagoak egiten giza arrazoiaren aurka jotzen duelako.

OINAZEAK ez gaitu senidetzen, ezta haurride egiten, ez du jendea elkartzen, ezin ditu gizakiak batu…

OINAZEAK mendekua, guda, gatazka, liskarra nahiz haserrebidea eragiten ditu.

OINAZEAZ ikasi ahal izateko, norberaren bizipenaz baino bestearen bizieraz ikasi beharra dago.

NAHIZ ETA bakoitzaren mina abiapuntu izan, hurkoarena izaten da ankerki edo erruki izateko hastapena.

HURKOAREN samina ezagutzea gupidabidea da.

BAINA mina bezainbeste, plazera da jakinbidea…

NAHIZ ETA plazera eta mina sentsazioez haratagoak izan… MINA krudela bezain bortitza da eta pertsonak, edota nortasunak, bahitu egiten ditu, giltzatu eta itxitu… norberaren alde ezkutuenak azalarazteko balio arren.

MINA ez baita min bakarrik, min harremanduna baizik.

MINAREKIN ZER EGIN? erantzuterakoan eraikitzen baita gizartea.

MINA ez baita hutsala ez eta hutsetik sortu,

OINAZEA gizarte praktiketan, giza ariketetan, gauzatzen delako.

MINA egiaren bidea delakoan torturatu egin delako.

ERLIJIOAREN gerizpean, nahiz legeria lagun, lagun hurkoaren jakintzaren bila.

ZORIGAITZAK ez du berdintzen

EZBEHARRAK mailukatu egiten ditu, mailakatu...

MEDUSAREN txanelean itsasoan galdutako naufrago guztiek ez zuten zorte berdina izan.

EZ eta Titanicen hildakoek ere…

ITSAS-trenak urperatutako denak harrapatu zituen baina tantaka… sufrikarioan ere klaseak baitaude.

HALERE, iraganean inoiz biktima izatearena ezin da geroan inola ordaindu, eta hau kitatu ezinezko zorra bihurtzen da gizartearentzat.

BIKTIMAREN izaera, bada, ia nagusitasun gisa, nolabaiteko pribilegio

moduko bat bihurtzen da bizitza osorako.

OINORDEKOEK eskuratzerik ohi dutena, gainera.

GIZARTEAK miresten duen egoeraz profitatzen den biktima biktima al da? Ezer egin gabe denak kulpanteak bihurtzen baititu.

Denak errudun berarentzat.

Bera, berriz, denen errukigarri.

HALA ETA GUZTIZ, askotan aurreko biktimak ez dira orainaldiko zapalketaren zuritzaileak baino.

ATZOKO BELTZAK, EGUNGO ZURIAK.

But even so, victims from the past seem to be little more than a justification for current oppression.

Yesterday's blacks, today's whites.

PEFREDOREN JABEGOA

Pefredo asaldatzearen agerpena izaten da, larritasunaren irudia, kezkatu egiten gaituena.

IZAN ohia da larritasunaren eremua.

EGOERA larriei aurre egitea da gizartearen eraketa fundatzen duena nahiz eraketa horri eusteko mina erabili behar.

BAINA

MIN horrek, eragindakoa izan arren, ez omen du ezberdintasuna

areagotzen ez eta, ustez, besteen sufrimenduez profitatzen.

ERAKETA politikoak min eman behar du.

ERAKETA politikoak heroiak eta martiriak ditu.

ERAKETA politikoak oinazean oinarritzen dira.

ERAKETA politikoak, oinazea eta guzti, gizarteak trinkotzen, zaintzen eta zilegiztatzen ditu.

ERAKETA politikoak oinazearen gizarte eraketa dakar.

OINAZEAREN gizarte eraketa, oroimena zein bizi espazioen antolaketa da.

DENON partez batzuek jasandako oinazea izaten da gizartearen muina, denon mina.

EZKUTATU ohi diren minak azalaraztea, ohiko eraketa politikoa pitzatzea dakar, botere harremanak aldaraztea…

EZKUTATUTAKO minak begiztarazten ditu minaren lepoz bizi dena eta minaren menpe iraun duena: Iraindutakoa.

DREYFUS edo Pierre Calas, Balzac edo Voltaire fanatismoaren pairatzaileak edo salatzaileak ez bide dira saltzaileak.

ESTATUAK babestu baino min emateraino diharduen burujabetza latza, oinazea eta anparoa nahasten duena.

ETA bietan jarrai, jendearen oinazea ontzat edo txartzat hartzen.

GARAILEAK jendearen minaren jabe bilakaturik, ohorea edo mespre-

txua banatuz, batzuk politikagune bihurtuz besteak baztertuz…

BAZTERTUTAKOAK dira bazterkatutakoak, ertzez ertz dabiltzanak, ezetzez ezetz entzunez, ezer ez dutenak.

ESTATUAREN politikaz landa dauden oinazeak azken hauek dira.

HERIOTZAK biologikoki berdintzen baitu ez politikoki.

IRABAZLEEN oinazea eta galtzaileena ezin baitira berdinak izan.

BOTERE egiturek min ematen dieten minak ezeztatu egiten baititu.

BOTEREAK ezin du onartzen ez dituen minez galderarik onartu.

BOTEREAREN min izaera bistaraziko luketen minak lirateke mingarriegiak.

BOTEREAK gutasuna behar du minari erreparatzeko mina erreparatzeko.

BAINA gu asko dago.

ETA oinazea ezin da denontzat berbera izan.

KOMUNITATEA min komunak gorpuzten dituelako.

OINAZEAK ez baitu gutasuna irekitzen ixten baizik.

BENETAN ez baitago oinaze unibertsalik, betebehar unibertsalen adierazpenik ez dagoen moduan, eskubide unibertsalen agiri bat egon arren.

EZ da Sastre edo Sartre izan behar torturatuen erkidegoa badagoela adierazteko.

BAITA ez torturatuena ere.

OINAZEAK eta hark sorraraziko elkartasuna loturik daudelako.

OINAZEAK ezin baitira berdin ikusi agintetik edo bazterketatik.

OINAZEA elkartasunerako iturritzat onartzea nahitaezkoa da baina ez nahikoa…

NAHIEZEKOAZ kanpo egiten denean behintzat.

OINAZEA ulertzeko gizarte azterketa burutu beharra dagoelako.

GALDETU eta ikertu.

OINAZEAREN desberdintasunei nahiz asimetriei erreparatzeko.

ELKARTASUNAREN politikak, gizarte zereginak baztertutakoen oinazeen berri eman behar du. Hura gabe, indarrean dagoen indarraren

aldeko indarrik besterik ez da egingo, agintearen gutasunaz kanpoko baztertutakoentzako gurasokeria.

URDEN BAZKA

Patua dugu Urd-en esanahia ipar aldeko mitologian. Bizitzaren bilakaera adierazteko irudia. Tragedia klasikoaren ardatza.

JATEN da
bizipenaz
patua.

OINAZEAK bere gramatika baitu.

GIZARTEAK minaren keinuak nahiz esanahiak ulertzen baititu, mina gizabanakoarena bada ere…

GIZA ARTEKOA gizakion artea da, gizabanakoek partetutakoa, eta mina ere, parteka daiteke…

GIZARTEAK zenbait minekiko elkartasuna baimentzen du beste min batzuk errefusatzen dituen bitartean. Bereizketa hauek osatzen dute minaren gramatika, oinazearen gizarte esanahia.

ETA HORRELA gizarteak gizabanakoen mina uler eta parteka lezake. Gizakiak bere mina komunikatzeko aukera dauka. Komunitatea sortzen da. Minaren gramatika ardatz.

OINAZEA adierazi ahal izatea baino oinazea behar bezala ulertzea izaten da gizartearen erronka, oinazearen gizarte izaeraz jabetzea.

OINAZEA giza artekoa baita eta gizakien artekoaren berri ematen du.

ATXILO dena, *reo*-a ez da gauza, ez da ezer *res* izan arren, atxigarria besterik…

POLITIKAK eta ZUZENBIDEAK gizakiaren nahiz gizartearen artekoa zedarritzen eta harritzen dute.

OINAZEAK laburbiltzen du bitarte hura.

OINAZEAREN gizarte erabilera bitarte horren manipulazioan dago.

OINAZEA harremanezkoa baita ez eta harreman ezkoa, ez baita inorena norberarena izan arren.

OINAZEA ez da pribatua pribazioa bada ere.

OINAZEA eragiten duten gizarteak badaude bai eta oinazeaz arduratzen diren giza harremanak ere.

BAINA oinazea komunikatzea, norberaren mina partekatzea, latza da eta ohiko komunikazioa ez da aski izaten adierazteko…

HORREGATIK gizarteek mina arautu egiten dute eta oinazearen adierazpenei arauak ezarri.

GIZARTE ereduak nahiz eraketak bideratu (edo biderkatu)egiten dituzte gizakion oinazeak.

OINAZEAREN antolaketa latzean oinarritutako gizartearen antolaketa deseraikitzea da politikaren oinarria.

OINAZEAK esanahia duelako zentzugabe den heinean, zerbaiten adierazpena da, larrialdi baten azalpena, ez du zentzurik baina esanahia eman behar zaio.

OINAZEAREN esanahiak haren gramatikaren arabera ulertu ohi dira.

GAIXOALDIAK, zigorrak, gudak, mendekuak, damuak, eginbeharrak, heriotzak, torturak, elkartasunak, errukitasunak, menpekotasunak, hezkuntzak, dohaintzak, bekamenak, erospenak… testuinguratu egiten dute oinazearen esanahia… justifikatu egiten dute… eragiten dute… mina.

MINAK hezi egiten duela diote.

HEROIAK esanahia duen oinazeari eusten daki.

ZORIONA aurkitzen omen du heroiak herioarekin.

BIKTIMA heroi bihurtzen duen gizarte eroan bizi gara.

OINAZEAREN partez anestesia maite duen gizarte hipokritak biktima heroi bilakatu du eta bilakaera hori arau bihurtu.

EGUNGO gure gizartean biktimak normaldu egin dituzte botere gramatikaren arabera.

EGIN dena egin beharreko bihurtuz, gizarte oinazea manipulatuz, gizarte arauei eutsi nahi diete eta mina iraunkor bihurtu.

KONTSUMOrako gizarte anestesiatu garaikidean mina ere pribatizatu nahi dute.

GIZARTE analgesikoak behar dituen heroiak sufritutakoak izaten dira.

GIZARTE aseptikoak eremu mugatuak, erreserba itxiak, behar ditu oinazea arautzeko, mina normaltzeko.

ENIOREN ADIOA

Birrintzailea eta odolzalea. Gudaren jainkosa, borrokalarien ama, arreba edota ahizpa. Gerratean dabilenaren laguntzailea.

BERDIN da ohitura edo ekandura, dena da gizarte-aztura.

ZER DA KULTURA? Kanpotik barrura edo barrendik kanpora, gizakiaren hezurdura.

GIZAKI guztion barrena funtsaz gain, mamiaz aparte, gizarte-aztura berezituan dago ekanduan begi bista-

koa dena, ikusten ez duguna, gauzak egiten jakitea bizitza zer den jakitea bainoago hura baita gizartearen funtsa, gizaki egiten gaituena.

GIZAKIOK, gizartearen parte izateaz gain gizartearen hezurdura eta mamia izan bagara…

ETA BIKTIMARENA EGITEN DUENAK martiriarena ere eginen du. Egia eta itxura batzen ote dituen batek daki: berak.

IKUSENTZULEGOAREN beharra baduen…

BURU UKAMENA, buru eskaintza, hildura izan daiteke, pazko-oparian bezala.

BAINA

SAKRIFIZIOAK "sacrum facere"ak, sagaratu egiten du, agurgarri bihur-

tu, babestoki santu bilakatu, gizakia aldatu.

OINAZEA sakrifizio bihurtzen dela gizartearen sendagarri bezala erabiltzen badakigu.

EROSKUNDEA, sufrituz bizitza luditzea da erlijioaren mezua.

SUFRITZEN bizitzea izaten da amua, sakrifizioa gurtzea, bizitzarekiko zorrak kitatzeko.

OINAZEAREN PEDAGOGIAZ norberaren erruak nahiz gizartearenak, berrerospenean sartzen dira, zertzen dira, bizitzarekiko zorrak kitatzeko.

SAKRIFIZIOAREN INDARRAK gizartea zeharkatzen du, oinazea baloratzen du, biktima miretsarazten du… eta mina eskagarri bihurtzen.

MIN batzuk susmagarriak izan arren, beste batzuk, berriz, zorrak dira gurasoen artean, seme-alabengatik, zuzenbideagatik… eta haietaz hitz egin liteke soilik.

OINAZE erakundeak sortzen dira horretarako.

SUFRIKARIOAK arautzeko, haien ondorioez arduratzeko, haietaz hitz egin ahal izateko. Haietaz soilik.

SUFRIMENDUA kulturala da, jantzia da, baina biluztu egiten gaitu.

HORREGATIK bihurtu nahi dute eritasuna delitu.

HORREGATIK kartzelatu egiten ditu oinaze-erakundeak zilegizkoak ez direnak, zorrezkoak ez direnak, gizarteak ezkutatzen dituenak.

OINAZEAK aurkia eta ifrentzua baititu.

OINAZEAren alde batek gizartearen bizimoduei die erreparatu, besteak, berriz, minaren juzkuak bihurtzen ditu bekatu.

AURKIAK norberaren minari egiten dio kasu baina ezin du bestearena ukatu.

BAKOITZAK jakiten du.

IFRENTZUA minaren adiera litzateke.

MINA min baita, hari buruz hitz egiterik ez badago ere.

BAINA gizakumeon oinazeak bi alde ditu, ez baita egitatea bakarrik parteka daitekeen biziera baizik.

OINAZEAZ izaten den jarrera oinazearen parte delako.

HILETAK, heriotz zigorra, kartzela gaztigua, tortura azorria… legeen, jujeen, auzitegien ondorioak dira…

MINA, bere gordinean ere, oinaze erakundeena baita.

ZUZENBIDEA, mina arautzeko gizarte erakundea da.

ZUZENBIDEAk debekatzen duena: gizarte mina, gizarte muina.

ZUZENTZA INTERDITA.

ZUZENBIDE DEBEKATUA

Arestiren poema galdua eta berreskuratua. Saririk merezi izan ez zuena. Herri baten sakrifizioaren poetika.

ERAKUNDEEK gizarte iraupenari eusten diote.

ESTATUA gizartearen oinarria da.

ZUZENBIDE estatuak gizarte mina erakundetzen du.

BIHOTZIK ez izan arren gizartearen bihotza da legea.

HOTSIK ez atera arren gizartearen ahotsa da zuzenbidea.

MIN hotza da Estatua. Hura biderkatua da Zuzenbide Estatua.

ESTATUTIK at hotz egiten du.

BAINA

ZUZENBIDEAK egurtzen duenean ez dago bide okerragorik zuzenbidea baino.

ZUZENBIDEAK zer erakundetzen du, gizakumeen oinazea edo jendearen sufrimenduez arduratzen den gizartea?

ERAKUNDEAK hotzak bezain gogorrak direlako eta ez daukate bihotzik.

ERAKUNDEAK zurrunak direlako, eta latzak, eta gogorrak, gizartea iraunarazteko, eta oinaze batzuk zilegiztatzeko.

OINAZEA gizartean modu ezberdinean banaturik egon arren… edota

OINAZEA gizartean modu ezberdinean banaturik dagoelako…

ZUZENBIDE DEBEKATUA izaten da gizartearen parte batentzat.

ZAURGARRIA denarentzat justiziak min du Estatu Zuzenbidean. Hemen, han eta Frantzian…

ZAURGARRIA dena zaurigarria da, berez. Zaurigarria denak berezko gabezia du:*homo patiens* izaten da.

BAINA gizakia berezko eraginek mindu arren gizarteak eragindakoak mintzen du gehien. Ez da Schopenhauer izan behar giza eramankizunaren erroa gizartearen errua dela jakiteko.

BEREZKOA ez den sufrikarioaren aurrean "azken epaiketaren" mitoak ez du balio. Azken batean, jauntxoaren eta menpekoaren artean emango den balizko berdintasunaren usteak ez du balio.

BIZITZAN, batzuk besteak baino zaurgarriagoak suertatzen direlako.

EZ berez ordea, babes faltagatik baizik.

GIZARTEAK, zoritxarren aurrean, gizaki jakinak bermatzen dituelako gizaki ezdeusak babeslekurik gabe uzten dituen bitartean.

MINAK jan ditzan…

MUNDUAren berdintasunak desberdintasuna mundialera eraman baitu, eramankizunaren mundializaziora.

ETA

OINAZEAren munduan arriskuak, minak nahiz eramankizunak desberdin daude banaturik, eta partiketa gaizto honek era desberdinez aterpetzen ditu gizakiak eta modu ezberdinean osatzen ditu ezbeharrak.

OINAZEAren munduan Gizadiaren parte bat beste parte baten lepotik ari da bizitzen.

PARTE horren abantailak besteen sufrimenduetan oinarritu ohi dira.

BAINA besteen oinazea esklabotza gizarte zaharrean ez nabarmendu arren, egungo gizarteak ere ez bide du nabari, urrutiko sufrimenduak baitira, edo ikusezinak, edota estaliak…

LANAren sufrimenduan oinarritzen den gizarte garaikidean.

OINAZEAren munduan, halere, eramankizuna bana liteke, edo minari aurre egiteko baliabideak gizartera daitezke, oinazearen ahalari aurre egin ahal izateko.

ERAGINDAKO minaren aurka aurre eginez sortu ohi dira eskubideak.

ESKUBIDEAK bainoago zorrak direnak.

ZUZENBIDE estatuak zor haiek kitatu ordez, zoratu da, zorpetu gaitu, zoritxarrez.

ZORIZ izan denik sinestea ere aski zaila izan arren.

HALABEHARREZ, gizarteari babesa ematea ala desberdintasunei bidea erraztea da dilema eta dema.

*VERDANDI*REN BERDINTASUNA

"Gaur egungoa" da Verdandi ipar aldeko mitologian. Aro garaikidean bizi beharra dagoen patu partekatua. Askatasunaren tragedia.

ZUZENBIDEAK minak arautu egiten ditu gizarte botereen arabera.

ZUZENBIDEAK oinazeak norma gaitzat ditu hartzen.

ZUZENBIDEAK oinazeak irudikatu, bideratu, gidatu eta ebatsi egiten ditu.

ZUZENBIDEAK oinazeak neurtu eta konpentsatu egiten ditu.

OINAZEA konpentsagaitza izan arren…

ZUZENBIDEAK magia duelako.

ZUZENBIDEA delakoa Politika delako.

BAINA gizarteak, edo Politikak, edota Zuzenbideak, heroiari nola konpentsatu konpentsaezina?

ZEINTZUK dira heroi bihurturiko biktimen eskubideak?

HEROIen zuzenbidea berdintasunean oinarritzen al da?

ESTATU ZUZENBIDEAK oinazea arautzen duelarik mina legalizatzen du eta oinaze iturri bihurtzen da.

ESKUBIDEEN aldeko ahaleginak, berriz, oinaze iturriak ixten garatu dira.

DENONTZAKO eskubideak Estatu Zuzenbide okerrak zuzentzen hazi ohi dira.

ZUZENBIDEAK ez baitu berdintasuna oinarri eskubideek ezberdintasunaren kontra jo arren.

BAINA eskubideen erreserba itxian Zuzenbideak agintzen du.

ZUZENBIDEA araua delako.

AGINTEA delako.

POLITIKA delako.

ESTATU boterea delako.

ZUZENBIDEA isuna, zigorra, zehapena, zentzagarria, dixidu, zemaia eta mehatxua da.

OINAZEAREN sorburua.

MINEN araua.

ZUZENBIDEAK minak hautatu eta hurrenkeran jartzen ditu, teorian nahiz praktikan.

MINAK ordaina dauka, eskubidea.

MINA normala eta eznormala bereizten du zuzenbideak bere arauen arabera.

MIN batzuk ez omen dira legezko eta debekatuta daude.

MONTAIGNEk berak deitoratu zuen minaren euspena zorrak kitatu beharra baita.

TORTURATUEN garrasiak zilegiak izateaz gain, jakintsuak izaten dira.

BAINA zuzenbideak min guztiak ez ditu berdin onartzen, ez eta berdin ordaindu ere.

ZUZENBIDEA min hautagailua da.

OINAZE batzuk, ikusten ez dituela, baztertzen dituela, erbesteratu eta okertzen dituela.

ZIGORRAK ematea, min eman ahal izatea da zuzenbidearen funtsa.

ZIGORRA zorra ordaintzeko baita bilatzen du zuzenbideak mina.

ZUZENBIDEAK mina legalizatzen du, okerrak zehaztuz, zorrak neurtuz, ordainketa modua aginduz.

MENDEKUAk ezabatu nahi ditu zuzenbideak eta errua deserrotu.

MEDEAPENAk errakuntzak ezabatzen dituelakoan minak ezagutaraziz.

BAINA zenbait min ezin dira ezagutarazi ez baitira publikoak izaten.

EGUN zigor ekonomiak agintzen du gizartea ekonomiaren arabera eratzen baita.

EGUN zigor antzuak ez du baliorik minak ere ekoizkorra behar baitu.

EGUN zigorraren teknika omen da zuzenbidea.

EGUN soina ekoitzita dela, Politika soinen kudeaketa da, botereen esparrua.

EGUN gorputz zigorra gorputz artekaritza da.

*SKULD*EN SUKALDEA

Gertatu beharko litzatekeena eta, halaber, gertatuko dena. Ezin da ez iraganetik ezta etorkizunetik bereizi. Denboraren indarra azaltzeko ipar aldeko mitologiaren irudia.

GAUR EGUN gertatzen dena Zuzenbidearen erabilera teknikoa da. Gorputz zigorra gordinegia baita, eta Estatua ahalguztiduna.
Zigorra ikusezina da eta adituen esku dago. Estatu zuzenbide guztiz ahaltsuak zigor esterilizazioa kudeatzen

du eta min legalari ezin zaio antzeman daukan botere guztiahalduna.

GAUR EGUN gertatzen dena da oinazea burokratizatu egin dutela, heriotzaren gizatasun galtzeak gizaki gabeko heriotza dakar…

GAUR EGUN gizarte ordenuarekin bat ez datorrenak pairatu behar du mina.

GAUR EGUN gizartetik kanporatu gizagabetuak, gizarte salbuespen egoera normalduak pairatu behar ditu.

GAUR EGUN gizarte segurantza giza segurtatze bihurtu da estatu bermea dutenentzat soilik.

GAUR EGUN gizarte bermerik ez duena gizagabetua da eta bere minak ez du balio eta ezin da ikusi.

GAUR EGUN, arrisku gizartean, min emaileari ez zaio antzematen.

GAUR EGUN gizarte aurreratua da mundu garaikidea eta minari diruz ordaintzen zaio.

GAUR EGUN da geroa.

JUSTIZIA INTERDITA

Gabriel Arestiren esapidea adiskideei idatzita Euskal Herriaren egoera laburbiltzeko.

GIZARTE GARAIKIDEA giza kate asurantza da eta gizakia bezero arrunta.

GIZARTE GARAIKIDEAn arriskua politikoa da arrisku politikak agintzen baitu.

GURE GIZARTE GARAIKIDEAn gizakiok, bezero legez, ezin dugu arriskuez deliberatu galzoriak halabeharrezkoak baitira.

GURE GIZARTE GARAIKIDEAn Politikak zein Zuzenbideak batzuk babesteko bidean beste batzuen sufrikario zuzenetsi eta emendatzen du.

GURE GIZARTE GARAIKIDEAn baztertuak, behartsuak, garaituak, txiroak, gaixoak, susmagarriak, eskaleak, ezberdinak, etsaiak, urriak, disidenteak… gure gizarte garaikidearen biktimak dira gure gizarte garaikideak biktima bilakatu dituelako.

GURE GIZARTE GARAIKIDEAren Zuzenbideak biktima izate uzteari ez dio eskubidea bermatzen.

GURE GIZARTE GARAIKIDEAn biktimak desagerrarazteko.

GURE GIZARTE GARAIKIDEAn biktima izaera deseraiki beharra dago.

Eta

GURE GIZARTE GARAIKIDEA ere deseraiki beharra dago.

BIKTIMISMOARI iraungitze data jartzeko Euriale eta bere ahizpak, baita Estatu Zuzenbidea ere, hil beharra dago patuaren tragediari askatasunaren tragedia ordezkatu behar baitio Medusa Baitan.

Egunero irakurtzen delako

Bilduma

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ez-kerraz.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*
10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*